# ITSATSITA


NANOTECH
NANOTEKNOLOGIAKO
IKERKETA-ZENTROA
MURILLO DOKTOREA! EZ ZAITUT KAFETEGIAN IKUSI.
KAIXO, DAYANNE! HEMENTXE NABIL, ZIENTZIAREN MISTERIOETAN MURGILDUTA.
BEGIRA, BEGIRA!
GEKKO-ESKULARRUAK. SEKULAKO ASMAKIZUNA!
BAI
BADAKIT
JENIO BAT NAIZ.


NIRE LAGUNTXOARI BEGIRA BURURATU ZITZAIDAN IDEIA. LIZARD EZIN HOBETO IGOTZEN DA PARETETAN GORA. EDOZEIN GAINAZALETAN ATXIKITZEKO GAI DENEZ, EZ DA ERORTZEN GRABITATEAREN ERAGINEZ. BAZENEKIEN HANKA NANOTEKNOLOGIKOAK DITUELA?
Lizardek milioika ile fin-fin dauzka hanketan. Ile bakoitzak ehunka adar ditu, eta adar bakoitzak 100-200 nanometroko txanpiñoi txikiak dauzka puntan. Van der Waals-en indarrari esker, txanpiñoi bakoitzak inurri baten zama jasan dezake. Gekkoak, hanketako milioika ileen indarraz baliatuz sabaian zintzilik egoteko eta 130 kilogramo jasateko gai dira.
Kg
EKARRI ESKULARRU HORI!
INBIDIA EZ DA BATERE ONA.
BAINA, ZER EGIN DUZU? NOLA JAITSIKO DUT HORTIK?
ZUK JAKINGO DUZU. ZU ZARA JENIOA EZTA?
EZ DAKIZU ONDO NON SARTZEN ARI ZAREN, MURILLO. ZER PRESTATU DUDAN IKUSTEN DUZUNEAN, HITZIK GABE GERATUKO ZARA.